

Prentsa oharra

Nota de prensa



ZERBITZUAREN LEHEN HILABETEAN, 7.700 BIDAIARIK ERABILI DUTE ILLUNBERA JOATEKO AUTOBUS ANEZKA

Gaur, abuztuak 11, hilabete bete da Illunbeko aparkalekura doan joateko autobusa martxan jarri zenetik eta emaitzak oso positiboak dira.

Cristina Lagék, Turismo Sostengagarriko zinegotziak adierazi duenez, "hilabete honetan, 7.696 bidaiarik erabili dute autobusa, eta, batzaz beste, 250 bidaiarik egunean. Ekimen honen datuak oso positiboak dira; izan ere, bisitatzeko gaituztenentzat doako aparkaleku disuasorio bat eskaintzeaz gain, modu bat da kotxe asko zentrora sar ez daitezela, egun hauetan gertatzen den kolapsoa areagotuz".

Autobus anezka Donostiako Shops merkatarien elkartearen ekimenetik sortu da eta Turismo zinegotzigoaren babesa izan du.

"Printzipioz, autobus anezkak abuztuaren 16ra arte (igandea) funtzionatuko du", nabarmendu du Lagék. "Bere garaian Mugikortasuneko eta Garraioko zinegotzigoarekin adostu genuen autobusak funtzionatzen bazuen zerbitzua zabaldu egin zitekeela. Dena den, Pilar Arana zinegotziarekin harremanetan jarri ostean, litekeena da autobus hau abuztua amaitu arte luzatzea, eta hori, zalantzarik gabe, albiste ona da".

Prentsa oharra

Nota de prensa

Lageren esanetan, "aurten Illunbeko disuasio-aparkalekuaren esperientziak emaitza ona eman du, eta horrek esperientzia berrietara bultzatzen gaitu. Erabiltzaile askok doako aparkalekuaren eskaintza eta hiriko erdigunerako garraio zerbitzua eskertu du. Ekimena sustatu zutenak ere, merkatariak, pozik daude esperientziak nola funtzionatu duen ikusita".

Datuei dagokienez, uztail amaieran eta batez ere abuztutik aurrera, datuek zifra aipagarriak eskaintzen dituzte. Bitxia bada ere, igandeak ez dira jende askoko egunak, baina bai larunbatetan edo astelehenetan. Autobus anezka Illunbeko plazaren atzealdetik irteten da eta Errondora hurbiltzen da, Menchu Gal lorategien ondoan dagoen geltokira.

DIA	JULIO	DÍA	AGOSTO
11	140	1	248
12	85	2	160
13	192	3	318
14	167	4	357
15	168	5	414
16	167	6	346
17	210	7	384
18	149	8	444
19	144	9	260
20	183	10	426
21	187		
22	297		
23	279		
24	255		
25	304		
26	162		
27	221		
28	262		
29	280		
30	160		
31	327		